




piipilean

*Soraluzeko Hamabostekaria* 80. alea 2003ko abenduaren 12a

**TOPAKETA  
FEMINISTAK  
PAREKIDETASUNAREN BIDEAN**







Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

# GOL

GOL industriak S.A.  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE

## Iragarlearen txokoa: Etxabe harategia

Merkatu plaza 6, Telef. 943752375

*“guk herriko baserrietako okelia saltzen dogu gehixenbat”*

-Noiz zabaldu zenuten harategixa?

Hoin dala 24 urte sabaldu genduan, eta andriak eta bixok itten dou lan bertan.

-Ze produktu saltzen ditzuzue?

Haragixa danetik, gero hotaz aparte beste gauza asko, arraultzak, enbutidua, pizzak, ... danetik.

-Jendiak zela hahartu dittu produktu berri honek?

Jediak gustora hartu dittu, naiz eta batzuri ez guztau, hori danian pasatzen da.

-Soraluzen haragi asko jaten al dou?

Bai , eta gu konforme gare.

-Jendiak denda txikixetan erosten jarraitzen al dau?

Okela kontutan jendiak herrixan erosten



jarraitzen dau ondo tratatzen jakolako eta konfiantza daolako, baina urtien poderioz denda txikixak desagertzen jungi dia igual, baina momentuz ez.

-Nungo haragixa saltzen dozu?

Herriko baserrietatik ekartzen dou normalian, Obe, Izarre, Bozgoiti... eta ez daonian hiltegitik.



## Gezur handi bat!

ETZOZI LARRAÑAGA

Abenduaren 1ean, Hiesaren Aurka-ko Egunaren inguruan ONUk aditzera eman du emakumea gaixotasun honen erdi gunean dagoela eta hau sexu eta ekonomiaren menpekotasunari erruz dela.

Apur bat lehenago, Azaroaren 25ean, Emakumearen Aurkako Biolentzia Ezabatzeko Nazioarteko Egunaren inguruan Emakundek zenbaki beldurgarriak kaleratu ditu. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian 2003. urteko lehen hiru hilabeteen bi hilketen ahaleginak, tratatu txarreatatik 1044 denuntzia eta 126 sexu askatasunaren aurkako delituak egon dira eta guzti hau kontuan izanda % 70rretik gora ez direla denuntziatzen.

Orain dela denbora gutxi Lakuako Justizia Departamentuaren laguntzaz argitaratu dira ikerketa batzuen emaitzen arabera Euskal Autonomi Erkidegoko kartzelatan preso egotearen zigorra bikoiztu egiten da emakume izateaz gain ama ere izanda.

Datu hauek gutxi batzuk besterik ez dira. Gezur handi batetan bizi gara. Eredu patriarkal honek emakumearen gaia gaitzitu dagoela sinetsi arazi nahi digu. Eta ez dago dudarik, gizartea gai da honi buelta eman eta aurre egiteko.

Horrela erakusten digu Bilgune Fe-

ministak, egunero emakumearen alde borrokatzen dabilenean. Abenduaren 12, 13 eta 14. egunetan Eibarren Ezker Abertzaleko Emakumeen II garren Topaketak ospatuko dira. Topaketa hauen helburu bat emakume abertzaleen formakuntzarako tresna bihurtzea izango litzateke. Bertan irakaskuntza, komunikabideak, kultura eta sozio ekonomiako arloak emakumearen gain duen garrantzia azpimarratuko da.

Jai parekide eta herrikoiak nola bultzatu; herri mugimenduetan berdintasuna nola txertatu; literaturan eta kirol munduan feminismoaren ezarpena nola eragin eta jartzen diren oztopo- ei nola aurre egin, izango dira tratatuko diren gaiak; Honetaz gain euskalduntzea, irakaskuntza eta euskal curriculumaren azterketa sakonak egingo dira; komunikabideak eta kontsumismoak gizartean eragiten dituen ondorio zuzenak aztertuko dira; etxeetan lanean aritzen direnen eskubideez, lesbianismoaz, askapenerako mugimendu iraultzaileaz, etorkinaz eta emakumearen inguruko beste zenbait gai baloratuko dira. Gaur egun feminismoari buruz Europan ari diren eztabaidak Euskal Herrira ekartzea izango da beste helburuetako bat, borrokarako planteamendu eta modu berriak proposatuz.

## Telegrapak

Hemen gara berriz. Stop. bidegorrixa bezain berri. Stop. oin ez dago aitzakirik. Stop. oinez, korrika, bizikletaz... Stop. Osintxurako luxizko bidia. Stop. gainera. Stop. ez dago ibaira jausteko bildurrik. Stop. hormigoiz josi dittuzten egurrezko hezixak usteldu arte behintzat. Stop. borondate onak be balio dau. Stop. txarrak baino gehixao. Stop. bestela galdetu makilapeko emakumieri. Stop. baina borondate ona ez da nahikua. Stop. bestela galdetu emakumieri. Stop. berdintasunaren edo hobeto esanda. Stop. parekidetasunaren inguruan. Stop. arazoan konponbidian sakontzia. Stop. errealitatia ezagutzia. Stop. arazuak konpontzeko ahalegina da balio dabena. Stop. horretara dator Deba Digitala egitasmua. Stop. komunikaziñua hobetzera. Stop. baina hor be badare ereduak. Stop. gu, ahaleginduko gara euskarazko bertsioa. Stop. bertsio kalitatezkoa izaten. Stop. zatoz!. Stop. datozela! Bihotz Bakartien Klubekoekin. Stop. Udalatxera. Stop. "zakil alu hori"/ek! muak!



**Argitaratzailea:**

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze

Telefona 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU

pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arienne Unamuno.

**Publizitatea:** Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

**Logotia:** Jon Gabilondo  
(943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Azala:** Pablo Galarraga

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA





## Zorion agurrak



**Martina Zubizarreta**  
Azaroaren 30a  
ZORIONAK!! ...  
Plaentxiako  
amama martxosie-  
nari! Etxekuak.



**Uxue eta Lore Gallastegi**  
Azaroaren 24 eta 28an  
ZORIONAK!!  
A ze pareta, karakola ta bareta! zorio-  
nak neskak! ia noiz formaltzen garan  
eh... (jejeje!)  
Lehengusina Ane eta etxeuak.



**Elia Ramos**  
Abenduaren 6a  
ZORIONAK!!  
Asko maite zaitu-  
gu! opari mordo  
bat jasoko dozu!  
Etxekuen partetik.



**Sandra Labrador**  
Abenduaren 2a  
ZORIONAK!!  
Egun eder eta  
zoriontsu bat opa  
dotsugu.  
Etxekuen partetik.



**Jon Agirre**  
Abenduaren 5a 24  
ZORIONAK!!  
Muxutxo asko gure  
etxeko printziari!  
Segi holakua izaten.  
Etxekuen partetik.



**Gorka Prieto eta Sandra Urrestarazu**  
Azaroaren 15ean ezkondu  
ziren Ezoziko baselizan.  
ZORIONAK!!  
Elkarbizitza zoriontsu bat  
opa dizuegu. Eta ia noiz  
egiten dogun afari on on  
bat Donostian.  
Pil-pileanekuen partez.

## Gutunak

### Ezkutuko heriotza zigorra

Zeozer izatekotan, hauxe da eta ez beste-  
rik preso politikoen senide eta lagunei  
gainean erori zaiguna. Mendeku eta  
gorrotoaren ondorio latz eta gordina.  
Sakabanaketa heriotzaren errepidea  
bihurtu da eta inork ez du ezer esaten. Ez  
al dago eskubiderik guretzat?

Joan zen larubatean, Valdemoroko espe-  
txean dauzkaqten Iñaki Etxeberria eta  
Iker Zubia euskal preso politikoa bisita-  
tzera zihoazen senitartekoen autoa erre-  
pidetik irten zen. Istripuaren ondorioz,  
han bertan hil zen Sara Fernandez iruin-  
darra. Istripu berean Izaskun Urkijo, gas-  
teiztarrak, zauri larriak jasan zituen.

Iragarritako heriotza baten aurrean  
gaude. Gero eta bakartuago dauzkaten  
gure senitarteko presoan eta Euskal  
Herriaren arteko zibilbor-hestea garela  
jakinik, heriotza zigorra ezarri digute:  
hirugarren senitartekoa galdu dugu erre-  
pidean aurrean, eta hamalau dira jada  
zerrenda beltz honetan. Tartean, nola  
ahaztu, Iñaki eta Asier.

Heriotza hauek ez dira kasualitatea, seni-  
deak hiltzeko diseinatutako mendekuzko  
eta gorrotozko neurria da sakabanaketa.

Urteak joan eta urteak etorri, milaka kilo-  
metro egitera behartu eta heriotza zigorra  
ezartzen digun neurri lazgarria da. Ez  
dute nahikoa presoak suntsitzearekin,  
senitarteko eta lagunak ere suntsitu nahi  
dituzte.

Eta honen aurrean, abertzale eta progre-  
sista omen diren alderdiek, EAJ, EA, EB  
eta enparauex ixilik jarraitzen dute. Noiz  
plazaratuko dira beraien asaldura eta  
kezka azalduz? Zer gehiago gertatu behar  
da gaiari hel diezaioten? Zeren esperoan  
daude? Noiz ekingo zaio sakabanaketa  
politikaren amaiera ekarriko duen lanari?  
Noiz erakutsiko dute benetako irtenbide-  
ak bilatzen hasteko gogoia?

Gurea bezalako herri txiki batek 700  
preso politikoa eta 2000 iheslari baino  
gehiago dituenean, kopuru hori etengabe  
gora doanean... hausnarketa sakon bat  
egiteko unea iritsi dela uste dugu, egoera  
hau ezin baita gehiago luzatu. Elkartu  
gaitezten, indarrak batu... hitzetatik egin-  
barrekoetara pasa, horrela lortuko bai-  
tugu egoera honen behin betirako kon-  
ponbidea.

**SARA MAITE ZAITUGU!  
SORALUZKO ETXERAT**

## Gazte Informazioa

### IKASTAROAK

#### Afrikar kultura

Haurralde Fundazioafrikar errealita-  
tea ezagutzeko ikastaroa antolatu du,  
afrikar kontinentearen ikuspegi zientifi-  
ko eta akademikoa emateko eta parte-  
hartzaileak Afrikako errealitate sozio-  
ekonomikora hurbiltzeko. Ikastaroa  
hiru modulutan emango da, euretako  
lehenengoa abenduaren 11 eta 12an,  
Donostian. Epea: abenduak 10.

### LEHIAKETAK

#### Itzulpena

AED Elkarteak eta Elkar Argitaletxeak  
XVII. Jokin Zaitegi Itzulpen Saria anto-  
latu dute, 2003ko Nobel Literatura  
Sariaren, John Maxwel Coetzeeren,  
Disgrace eleberria euskarara itzultze-  
ko helburuarekin. Lehiaketara lan  
horren lehen sei orrialde aurkeztuko  
dira itzulita. 4.200 euroko sari bakarra.  
Epea: abenduak 9

### LANA

#### Gizarte eta kultura dinamizatzailea

Bakioko Udalak gizarte eta kultura  
gaietarako dinamizatzaile plaza bat  
oposizio-lehiaketa aske bitartez bete-  
tzeko deialdia egin du. Baldintzak: uni-  
bertsitateko diplomatu titulua edo  
baliokidea eta euskarazko 3. hizkuntza  
eskakizuna izatea. Epea: abenduak 9

#### Gizarte eta kultura dinamizatzailea

Errenteriako Udalak Arkitekto Tekniko  
bat kontratatzeko oposizio-deialdia  
egin du. Baldintzak: Arkitekto  
Teknikoaren titulua, B1 gidabaimena  
eta euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna  
izatea. Epea: abenduak 10

#### Suhiltzaileak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 17 suhil-  
tzaile-lanpostu betetzeko oposizio-  
lehiaketa antolatu du. Baldintzak:  
Eskola Graduatua, Oinarrizko  
Batxilergo titulua edo baliokidea eta B,  
B1, C edo C1 motako gidabaimena  
izatea. Epea: abenduak 11



**aras S.A.L.**

DIN arauak jarraituz eta  
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21  
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
Faxa 943 75 22 95  
20590 Soraluze



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5  
Tfnoa 943 75 18 91  
Faxa 943 75 24 58  
E - maila: [etxehun@teleline.es](mailto:etxehun@teleline.es)  
[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE  
Gipuzkoa

## Zer irizten dotsazu?

Datorren asteburuan gaur egun emakumeak gure gizartean bizi duen egoeraren hausnarketa egingo dute Eibarren. Bilgune Feministak antolatuta, emakume abertzaleen topaketak egingo dira Unibertsitate Laboralean. Zelan ikusten dugu soraluzetarrok emakumearen egoera?

# Zela ikusten dozu emakumiaren egoeria gaur egungo gizartian?



**Mª Asuncion Ariznabarreta**  
77 urte  
Jubilatua

Lehen baino berdintasun gehixao dagan arren, ondiok be dexente falta da. Etxia emakumiak eramaten dau ondiokan be eta lan munduan be, ondiok gizon-zkuek emakumezkuek baino abantaila gehixao dake.



**Luis Urizar**  
46 urte  
Langilia

Nik uste dot emakumiak ez daukela aukerarik benetako berdintasuna lortzeko, nahiz eta gaur egunian toki askotan baietz esaten daben. Kalian berdintasun haundixaua ikusten dot baina lan munduari dagokixonez alde haundixa dao.



**Gorka Tornos**  
18 urte  
Ikaslia

Ez dare gizon-zkuek maila berdinian. Lan arluan nabarmentzen da asko, ez dabelako gizonak beste kobratzen lan berdina egin-da eta lana topatzeko be gaitzagua dake.



**Amagoia Ostolaza**  
27 urte  
Langilia

Emakumiak eta gizon-zkuek ez gare berdinduta. Gehixen bat lanian igartzen dot nik hori, bai kargu bat bilatzeko orduan eta baita kobratzeko orduan be. Etxeko lanetan be andrak dira gehixen egitten dabenak. Arazuari aurre egiteko jendian mentalidadia asko aladatu biharra dao.



**Asun Prol**  
57 urte  
Etxekoandria

Nik uste dot ondiokan berdintasuna lortzeko asko falta dala alderdi guztieri dagokixonez. Emakumiak gara ondiokan be erresponentsabilitate guztian kargu garanak. Arazua konpontzeko jende guztia hobeto kontzientziatu biharko litzake.



**Pedro Agirre**  
70 urte  
Jubilatua

Oin bezain ondo sekula ez dira bizi izan emakumiak. Oin nahi daben dana egitten dabe eta nahi beste askatasun dauke, nik kalian eta ikusten dotena hori da behintzat.

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



**Hnos. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Lankidetzaren hitzarmena "Deba digitala" bultzatzeko

Eusko Jaurlaritzak, Debagoineko mankomunitateak eta Debegesak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten joan zen asteazkenean. Horri esker, "Deba digitala" proiektuak 400 mila euroko dirulaguntza jasoko du. Hitzarmen ekitaldian Eusko Jaurlaritzako industria sailburu Josu Jon Imaz, Debagoineko Mankomunitateko lehendakaria Ignazio Lakunza eta Debegesako lehendakaria Alberto Sodupe izan ziren.

Eibarko Debegesako eraikinean sinatu zen Jaurlaritzaren eta Debagoineko eta Debabarreneko eskualdeen arteko hitzarmena. Akordioa "Euskadi Informazioaren Gizartean" planaren barruan kokatzen da. Eusko Jaurlaritzaren Gobernu kontseiluak onartu zuen plana 2002ko otsailaren 19an, eta 400 mila euroko dirulaguntza jasoko du Deba digitala proiektuak orain.

Debarroko 17 Udalek eta Urola garraio 2k esku hartu dute proiektuan. Helburua da, informazioaren gizarateak frogatzea herritarren eguneroko bizitzan duen eragina. Hau da, teknologi



Aurkezpenean, Debegesa, Jaurlaritzaren eta Debagoineko ordezkariak.

berriak eta internet herritarren eta enpresen esku jartzea. Imaz sailburuak esan duenez; "proiektu pilotua da Euskal Autonomia Erkidegoan eta hainbat onura ekarriko dizkie ibarreko enpresei eta herritarrei".

Proiektuak aurrirakusten du honako jarduerak hauek garatzea; administrazio publikoa, industria, merkataritza, hezkuntza, osasun zerbitzuak, kultura, turismoa eta aisialdia. Hori guztia garatuko dute Interneten.

## Aurten 5 tratu txar kasuren salaketak izan dira herrian

Genero Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen azaroaren 25ean. Azken urteetan gizaratearen arazoarekiko kontzientziazioan pauso garrantzitsuak eman badira ere, emakume askok eta askok jasan behar izaten dituzte oraindik ere gehiegikeriak, emakume izate hutsagaitik.

2003ko lehen sei hilabeteetan 1.044 salaketa jaso ditu Ertzaintzak (544 delitu, 500 falta eta 2 hilketa). 1999tik 2003ko uztaila bitartean, gutxienez 13 emakume hil dira tratu txarren ondorioz. Emakunderen arabera, emakumeen %10ak jasaten dituzte tratu txarrak eta horietako %30ak baino ez dute erasotzailea salatzen. Sorraluzeko Udaleko Ongizate Saileko teknikariak jakinarazi digunez, 2003an tratu txarrak salatu dituzten 5 emakumeren kasuen berri izan



dute. Horietatik 4k jo dute Udaleko Gizarte Zerbitzura.

Udaleko Gizarte Zerbitzutik azaldu digutenez, gero eta gehiago dira erasotzailea salatzen diren emakumeak. Azken urteetan arazoa gizarteratzeko egin den ahaleginak zer ikusi handia omen du jarrera aldaketa horretan. Erakundeen aldetik ere aurrerapen garrantzitsuak izan direla adierazi digute; dohaineko aholkularitza juridikoa eta laguntza psikologikoa, babes-etxeak, urruntasun aginduak kontrolatzeko sistemak...

Laguntza jaso nahi izanez gero, Sorraluzeko Gizarte Zerbitzura (943741008) edo SAV-era (Bitimeko laguntzeko zerbitzua) (943474517) jo daiteke.



## Lakuesta

**Optika** 

Ikusmen arazoaren frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Sorraluze  
Tfnoa 943 75 30 59

## Etxabe Harategia

Euskal txahalkia-Bildotsa



**Merkatu Plaza**  
**6-7 Postuak**  
**Telef. 943752375**



## “Euskara merkataritzara” egitasmoa jarri du martxan euskara zerbitzuak

Udaleko Euskara Zerbitzuak “Euskara merkataritzara” egitasmoa jarri du martxan. Egitasmo honek herriko txikizkako merkataritza osatzen duten komertzioetan euskararen erabilera bideratzeko erreztasunak ematea du helburu.

Azken bi asteetan, Naiara Beretxina- ga teknikaria, herriko 70 komertzioetan (taberna, jatetxe, harategi, frutadenda...) izan da. Dendari bakoitzari, Udalak, bezeroarekiko harremanetan nahiz enpresa barneko funtzionamenduan euskara erabiltzeko dauden laguntzen berri eman die. Hortaz gainera, herriko komertzioetan euskararen egoera nolako den ezagutzeko fitxa bat ere osatu du dendari bakoitzarekin.

Udalak, era ezberdinetako laguntzak eskeintzen dizkie dendariei; euskarazko ikastaroak (%100 ordainduta), errotulazioak euskaratzeko dirulaguntzak (euskara hutsezkoa denean % 50ekoak), “zabalik” “itxita” moduko oharra jasotzen dituzten karteltxoen eskaerak eta hizkuntza aholkularitza besteak beste.



Egitasmoak dendarien artean oso harrera ona izan duela adierazi digu Naiarak eta datozen hilabeteetan dendari askok Udalaren eskeintzak baliatuko dituztela itxaroten du. Hala ere datozen asteetan sustapen lana egiten jarraituko dute.

## Udalak Elgoibarko larrialdi etxearen hitzarmena berritu du

Udaleko Osasun eta Gizarte Ongizateko batzordearen proposamenez, Udalak Elgoibarren kokatuta dagoen larrialdietarako etxea erabiltzeko hitzarmena berritu du. Etxebizitza hau, Debabarreneko herri guztien erabilerrako da, larrialdi kasuetan erabiltzeko. Etorkizunean meta horretako etxebizitza herrian bertan egokitzea da Udalaren asmoa.

## Bidegorria zabalik dago dagoeneko



Dagoeneko zabalik dago Soralu- zetik Osintxura bitarteko bidegorri zatia. Ur estoldak, bide bazterretako egurrezko barandatuak eta zoruaren egokitzapenak eginda daude eta ondorengo egunetan bidegorria markatuko dute.

Hurrengo lana Osintxutik Bergara arteko bidea egitea izango da.

## Lan istripua etxebizitza berrietan

Joan zen azaroaren 27an, Errekaldeko etxebizitza berrietan lanean ari ziren bi langilek zauri arinak jasan zituzten. Istripua arratsalde partean gertatu zen hormigoia botatzen ari ziren zoruan behera egin zuenean. Zauritutako langileak oneratu omen dira dagoeneko.

## Sakabanaketaren aurkako elkarretaratzea

DISPERTSIOA HILTZAILEA

Sara maite zaitugu

Asteburuan Euskal preso bati bisita egitera zihoala auto istripuan hildako Sara Fernandez iruindarraren heriotza salatzeke Etxeratek elkarretaratzea egin zuen Plaza Berrian. Aurten dagoeneko 3 dira bisitan zoazela hil direnak.

**Juan Mari**  
Arraindegia

Eguneroko  
arraina  
eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnua 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



**FER. S.A.**  
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze  
Tlfonua: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

# Topaketa Feministak Eibarren parekidetasunari bidea egiten

*Euskal herriko emakumeen egoera abiapuntautzat hartuta, datorren Abenduaren 12,13 eta 14ean zehar "euskal herriko emakume abertzaleen II. Topaketak" egingo dira Eibarko Unibertsitate Laboralean bilgune feministaren antolatuta.*

Parekidetasuna da Bilgune Feministak darabilen hitz-gakoa. Eta horixe da hain zuzen bere jardunean bilatzen duen helburua; gizona eta emakumezkoen arteko parekidetasuna lortzea, biak maila berean ezartzea alegia.

80. eta 90. hamarkadetan emakume taldeek eta feminismoak Euskal Herrian izan zuen indarra, arrazoi ezberdinengatik, ahultzen joan da azken urteotan.. Beste herri batzuetan bezela, Soraluzean ere izan zen oraindela urte batzuk emakume talde bat. Baina denborarekin, "errelebo eta taldearen kohesio falta" ren eraginez, desagertu egin zen taldea, bertan parte hartu zuen emakume batek adierazi digunez. Gaur egun, herrian ez dago feminismoa ildo bakar moduan lantzen duen jende talde antolatutirik, nahiz eta talde politiko eta gazte talde batzuek euren jardura eta aldarrikapenaren barruan tarte berezia eskaintzen dioten kontzientzia feministari.

Udalaren aldetik, emakumeen egoera hobetzeko egitasmo zehatzak burutu diren arren (emakume masektomizatuendako laguntzak, tratu txarrak jasan dituzten emakumeenganako arreta eta laster ordenagailu bidez lan egiteko emakumeendako gela) Emakume Saila sortzeko egin diren eskaerak (ezker abertzaletik bidez ere) ez dira gauzatu eta beraz ez da zehazki emakumearen egoera aztertzeke lan ildorik sortu.

Feminismoaren mugimendu berrien eta nondik noraeon berri jakin nahian jo dugu Bilgune feministako Aitziber eta Maiterengana eta elkarriketa mamitsu bat izan dugu..



Kateatutako emakumearen irudia.

## TOPAKETETAKO EGITARAU

### \* Ostirala 12

18:00 Harrera ekitaldia  
18:30 Sektoreen aurkezpena  
19:00 Hitzaldia: Euskal emakumeon historia  
20:30 Afaria  
23:00 Zinea

### \* Larunbata 13

09:00 Gosaria  
09:30 - 14:00 Sektoreetako programak  
14:00 Bazkaria  
16:00 - 18:00 Sektoreetako programak  
18:30 - 20:30 Hitzaldia: Europa: feminismoarako erreferentzia?  
20:45 Bertso Afaria  
23:00 Ipuin kontalaria

### \* Igandea 14

09:00 Gosaria  
09:30 - 14:00 Hitzaldiak eta mahainguruak:  
drogamenpekotasuna, etorkinak, gazteria, lesbianismoa, maskulinitasuna, demografia, zientzia, espetxea...  
14:00 Bazkaria  
16:00 - 18:00 Hitzaldia (gizonezkoen ere zabalik):  
Emakumea eta feminismoa iraultza eta askapen mugimenduetan  
18:00 Bukaera ekitaldia.

### Izena emateko eta informazio gehiago

- Telefona: 605769469. E-mail: ehbf@euskalerrria.org

## Instalaciones Kalebarren S.L.



20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92  
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES



## MENDIZABAL

### OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE



# “Ia dena eginda dagoenaren sentsazio bat zabaldu da gizartean eta horrek asko zailtzen du jendea benetan kontzientziaraztea”

## Noiz eta zertarako sortu zen Bilgune Feminista?

Bilgunea 2002ko apirillean sortu zen. Emakume ezkertiar eta abertzaleak somatu zuten behar zutela eztabaidatu eta beraien artean komunikatuta egoteko gune bat. Batez ere ikusten zen egoeraren diagnostiko bat egiteko beharra, ikuspuntu feminista, abertzale eta izaera ezkertiar batetik begiratuta.

Bestetik, feminismoaren barruan mugimendu eta tendentzia ezberdin asko daudela jakinda, beharrezkotzat jotzen genuen oinarritzko diskurtso bateratu bat osatzea. Mugimendu haundi nahiz txikiak elkar elikatu daitezten eta ez dadin isolatu, beharrezkoa da kohesio minimoa. 90. Hamarkadetako herrietako emakume talde asko kohesio falta horregatik galdu zirelakoan gaude, orduan mugimendu feminista oso oso indartsua zegoen Euskal Herrian.

## Zer jarduera garatzen dituzue?

Momentu honetan hainbat baliabide garatzen saiatzen ari gara. Emaraun aldizkari edo boletina, lau sektore estratagiko lantzen dituen; sozioekonomia, irakaskuntza, kultura eta komunikabideak. Emagi, emakumearen dokumentazio eta ikerkuntza, irakaskuntzan minimoen taula bat, kulturaren emakumeen produkzio artistikoa gizarteratzeko Plazara egitasmoa, komunikabideetan estilo liburu bat eta abar. Hori lan guzti hori egiteko herri eta eskualdeetan emakume taldeak sortzen ari gara.

## Emakumearen gaur egungo egoeraren inguruan ze balorazio egiten duzue?

Azken urteotako ongizate ekonomiko eta garapenak, instituzioak eta beste jende bat, hein batean feminismoaren hainbat eskakizun zehatz asimilatzerara heldu dira; tratatu txarrak, lan mundua... Beharbada mugimendu feminista batzuk ez dute jakin “aurrerapauso” hori asimilatzen eta ez dituzte eskabide berriak garatu, ondorioz ia dena eginda dagoenaren sentsazio bat zabaldu da gizartean eta horrek asko zailtzen du jendea benetan kontzientziaraztea.

Guk arazoa estrukturala dela uste dugu, emakumearen aurkako zapalkuntzak ingurune guztietan gertatzen jarraitzen dutela. Jendearen arteko erlazioak parekideak direla pentsatzen du-



Aitziber Martinez de Lagos bilbotarra eta Maite Seguroa azpeitiarrak Topaketa Feministen antolaketa lanetan dihardute buru belarri.

*“Guk arazoa estrukturala dela uste dugu, emakumearen aurkako zapalkuntzak ingurune guztietan gertatzen jarraitzen dutela”*

gunean edo hainbat inguru aurrerakoietan hala izan behar luketela uste dugunean ere, aurkitzen gara egoera ezberdinekin non benetan ez den adierazten usteko berdintasun hori. Jendarte horietan, sexuen arteko hierarkizazio bat ematen da eta emakumea bigarren maila batean kokatua dago. Emakumea dagoen arlo guztietan zapalkuntza jasotzen du. Hori kontuan izanik, guk erantzuna edo borroka ere orokortasun baten planteatzen dugu, beste mugimendu eta talde batzuek konponketa partzialak proposatzen dituzte.

## Zein da gizarte patriarkalista batean bizitzaren ondorioa da?

Urtetan ezkatutua izan den zapalkuntza era bat izan da. Beti esan izan da historia irabazleek idatzi izan dutela eta kasu honetan ere hala gertatzen da. Orokorrean gizonak izan dira munduaren jabe izan direnak, eta orain ere horrela da. Inori ere ez zaio interesatzen bere kontra dijoan historia idaztea. Sis-

tema patriarkala, gaur egun gizartean bizi dugun egoera sustengatzen ari den sistema da, arau tradizioaletatik abiatuta. Emakumea menpeko egoera batean egoteak sortzen duen onura ekonomikoa eta abar, ezkatututa daude, azalean baleude inor ez litzateke sistema hori mantentzearen aldekoa izango.

Emakumea arlo pribatura bideratua izan da eta gizonezkoa arlo publikora. Arlo publikoan dagoenak kudeatzen du dena. Gure kasuan sistema patriarkala eta neoliberala daukagu. Esaten denean, emakumeak merkatu laboralean sartu direlako berdintasuna lortu dela, horrek ere bere tranpa du. Emakumea lan mundura bideratu da sistema neoliberalak hala eskatzen duelako. Baina arlo publikoan ere emakumea bigarren mailan gelditzen da. Arlo pribatua oraindik ez da aldatu.

## Topaketetara datorrenak zer aurkituko du?

Topaketetara datorrenak feminismoaren inguruan izan ditzakeen zalan-tzei buruz hitz egiteko espazio bat aurkituko du. Ahalegin berezia egin dugu Topaketa hauek anitzak izan daitezten eta ahalik eta gai gehienak lantzeko aukera eskeintzen. Euskal Herriaz kanpo aurkitu ditzekegun hainbat proiektu eztaba-ida gune eta proiektu azalduko dira.

Bi arlo banatu ditugu, batetik formakuntza orokorra izango da eta bestetik, sozio-ekonomia, hezkuntza, kultura eta komunikabide sektoreak aztertuko dira, proiektu praktikoak planteatzeko.

## Etorkizunean parekidetasunerantz aurrera egiteko gakoak zein dira?

Arazoa jendartearena da. Arazoa gizarte arazo moduan ulertzen hasi behar dugu. Parekidetasuna hartu behar dugu edozein jendarteren erlazioak bideratzeko oinarritzko printzipio moduan. Jendarte horretan parte hartzen dugun instituzio eta gizarte eragile guztiok bakoitzak bere jardueran borroka hau txertatzen joatea da bidea. Ezin da eskatu lan espezifiko bat egitea baina bai bakoitzak bere jardunean printzipio batzuk aplikatzea. Kontutan hartu behar da gizarte honen %50<sup>a</sup> emakumeak direla eta gaur egun egoera ezberdin baten bizi direla, arazo horri buru belarri ekin behar zaiola konturatzea da gakoa.

# Aurten literatura eramango du Gaztelupek Durangora

Aurten ere, Gaztelupekoak nobedez beteta joango dira abenduaren 4, 5, 6, 7 eta 8an Durangon egingo den Euskal Liburu eta Diskoen Azokara. Aurten gainera musika arloko berrikuntzez gain literatura alorreko hiru lan ere aurkeztuko dituzte Paper Hotsak sail berrriaren barruan. Sail berri honek musikarekin zerikusia duten literatur lanak kaleratuko ditu. Hona nobedade nagusien zerrenda:

## \*Ohiko markarekin

- Karidadeko Benta
- Mal de Ojoren "Mestijaia"
- Mikel Urdangarinen DVDA

## \*Jazz Errabal

- Sant Pau 44

## \*Noizpop (marka berria)

- Audience taldearen 2.a

## \*Paper Hotsak

- Zaharregia Txikiegia (poesia eta



Gaztelupeko Hotsak-ek Paper Hotsaken barruan kaleratu duen ipuin txinatar bilduma. diskoa).

- Mandarin Dotore (ipuin txinatarren bilduma, eskulanez egindako zatiekin eta edizio mugatukoa)
- Karibetik Kantaurira (Joakin arregi "Txe"ren bertso bilduma)

## Baserrien liburua Durangon

Debabarreneko Badihardugu Euskara Elkartearen estandean izango da Soraluzeko Baserrien Gidaliburua Debabarreneko beste herrietako argitalpenekin batera.

## Carlos Lopez Espainiako 2. seiluetan

## Tibeteko argazki erakusketa



Carlos Lopez soraluzetarrak zilarrezko saria lortu du, azaroaren 23-29 bitartean Eibarren antolatutako estatu mailako Exfibar lehiaketan. Alemaniako itsasontzi zurien seilu bildumarekin lortu du saria. Argazkian, Carlos bera lehiaketan eman zioten diploma eskuetan duela. Zorionak!

Kontrargi argazki taldeak antolatuta, Tibeteko mendien argazkiak biltzen dituen erakusketa izango da ikusgai Kiroldegiko Erakusketa aretoan. Abenduaren 2tik 20ra bitartean izango da zabalik erakusketa. Ikusgai izango diren argazkien egilea Juan Ramon Alavori zumaiarra da eta argazkiekin batera berak idatzitako liburu bat eta posterrak ere badaude.

## 26 Lagun Rallyan

Azaroaren 23an Kontrargik antolatuta egin zen argazki rallyan, Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat herritatik etorritako 26 argazkilarik hartu zuten parte. Botila, lerroak, baserri giroa, eta Atxuriko parkea izan ziren antolatzaileek ezarritako gaiak. Sari banaketa abenduaren 13an egingo da Kiroldegian eta argazkien erakusketa ondoren..

## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
Txipiroiak, Barazki Menestra,  
Gixauak...  
Asteburuan plater konbinatuak  
Enkarguak etxerako  
( bazkariak eta afariak )  
Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87



## SAN ANDRES Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46



# Monika Muro Udalbiltzako kidea

*“Zegaittik ezin dogu euskaldun eta Euskal Herritar sentitzen garanok identitate hori adierazten daben agiri bat izan? Abenduaren 13an aukera eskeini nahi dogu”*

Datorren abenduaren 13 eta 14an Euskal Herriko Naziotasun Agiriaren (EHNA) tramitazioak egiteko kanpaina hasiko du Udalbiltzak.

Orain bi urte Bai Euskal Herriari kanpainarekin 125.000 sinadura bildu zituzten herriz herri, Udalbiltzari EHNA tramitatzeko bideak jar zitzala eskatuz. Sorraluzen 500 sinadura baino gehiago bildu zituzten orduko hartan.

Sorraluzen abenduaren 13a izango da kanpainaren egun nagusia. Ezker abertzaleko Udalbiltzako ordezkariak antolatuta, dantza eta bertsoz alaitutako ekitaldia egingo dute goizaldean. Horretaz gainera, egun guztian zehar EHNA ateratzeko mahaiak izango dira kalean.

## Zer da EHNA?

Euskal Herriko Naziotasun Agirixa. Gure naziotasuna adierazteko Agirixa da. Euskal Herritarrak garala adierazteko. Ez da “nortasun” agiri bat, naziotasun agiri bat da. Jente askok sinbolikotzat jotzen dau, beste nortasun agiri bat balitz moduan baina ez da hori. Ez da norbere burua identifikatzeko tresna bat, euskal herritarrak garala, euskal naziotasuna daukagula, naziotasun hori errespetatua ikusi nahi dogula, nazio baten parte garala eta horri guzti horrekiko adierazpen bat egiteko balio daben tresna da. Horretarako ezinbestekua da erabiltzia.

## Baina nortasun agiri bat ez bada zertarako balixo dau?

Ba, egongo da jentia esango dabena ez dabela ezertarako balio eta beste batzuk esango dabe edozertarako balio dabela. Hor gakua norberagan dao. Norberak sinisten badau euskal herritarra dala eta eskubide batzuk dittuala, erabili egingo dau. Eta nik, zuk eta harek erabiltzen badabe gero eta erabilgarrixaua izango da.

## Adibidez zertarako erabili leike?

Ba gauza askotarako. Bankuan erakusteko, erosketak egitteko, polikiroldegixan, Udaletxian... Gaur egun egixa esateko muga asko dago euskal herritar modura azaltzeko baina poliki poliki, erabili ahala, juango da eremuak irabazten.

## Alderdi kontituzionalistak baztertzailetzat jotzen dabe eta “beste” Udalbiltzak ez dau babesten?



Monika Muro eskuan EHNA duela.

Inor ez da derrigortzen euskal herritar sentitzera; bakoitzak sentitu bihar dau lotura hori bere herrixarekiko. Espainiar sentitzen danak badauka bere nortasun agirixa, nahi ala ez nahi. Zegaittik ezin dogu euskaldun sentitzen garanok gure identitatia adierazteko agiri bat izan?

“Beste” Udalbiltzari dagokixonez, eurak jakingo dabe zergaitik ez daben bultzatzen, dana dala guk aurrera egingo dogu.

## Euskal Nortasun Agirixa ENA be hor dao ezta?

ENA Talde pribatu batek jarri zeban martxan. Bere garaixan ez zeguan ezer senduagorik eta jente askok etara zeban. Kontua da, Udalbiltzak EHNA aurkezten dabeanian, instituzio nazional batek jentia eskariz etaratako Agiri bat daguala eta gure ustetan dudarik barik-hori da zilegitasun haundixagua daukana eta bultzatu bihar dana.

## Zer egin bihar da EHNA etaratzeko?

Ba beste leku batzuetan aspaldittik dao aukeria baina hemen ointxe hasiko gara.

Abenduan 13an eta hortik aurrera, mahaixak ipiniko dittugu kalia. Aurrera begira herri danetan EHNA etaratzeko toki egonkorak ipintzia da helburua eta Sorraluzen be ahaleginduko gara bat jartzen.

## **EHNA eskuratzeko eginbeharrekoak**

**1. PADROIAREN AGIRIA**  
Udaletxean eskatu behar da.

**2. HIRU ARGAZKI**  
Karnet tamainako hiru argazki, berriak eta hondo zuridunak.

**3. ORDAINKETA EGIN**  
12€ Ordaindu behar dira bertan, tramitazio gastuak ordaintzeko.

**4. AGIRIAK AUKEZTU**  
Padroiaren agiria, argazkiak eta 12 € eraman behar dira, kaleko postura edo bere kasuan EHNA ateratzeko bulegora.

**5. 45 EGUNEN BURUAN BULEGO BEREAN, EUSKAL HERRIKO NAZIOTASUN AGIRIA JASO.**

*Informazio gehiago nahi izan ezke-ro [www.udalbiltza.net](http://www.udalbiltza.net) helbidean.*





# Nerea Gerrikaetxeberria

“Soraluzen oso bide txarrak dare autuakin ibiltzeko”

Kaleko jentia ihes egiten zoskula ikusitta, Soraluzeko auto eskolan sartu gara espazio itxixa aprobetxatuta bateronbat harrapatzeko intentziñoz. Eibartar bat harrapatu dogu, “autoeskolako neska”, behin eta berriz jendiari azalpen berdina emoten jarduten dabena. Harritzeko moduko umore eta gogoz erantzun dotse gure galderei. Igartzen da bai ohituta daguala berba egitten.

**I**zen abizenak, edadia eta lanbidea.

Nerea Gerrikaetxeberria Sarasua, 19 urte dittut eta autoeskolan egiten dot lan.

**Zenbakixa, koloria, animalia eta abestixa.**

13, koloria urdina, animalixak beldurra emoten doste eta abesti bat ezin neike aukeratu.

**Ze gustatzen jatzu egittia zure aisialdian?**

Ba kalia egotia lagunekin.

**Hiru desio.**

Dirua, maitasuna eta eroso bizitzia.

**Gustoko menua.**

Langostinuak, karakolak, gabonetako afarixak...

**Txikitako oroitzapenen bat.**

Oso gaiztua nintzan eta beti pentsatzen neban lapurrak sartu bihar zirala etxian eta nik, ez sartzeko, gauzak eta globuak jartzen nittuan nere kuartuan.

**Nora, zeinekin eta zertara?**

Irla desertu batera, nere mutilarekin, ondo pasatzera.

**Telebistako saio bat.**

CSI, baina ez dot telebista asko ikusten, ez dakat denborarik ikusteko.

**Zer da bene benetako egixa.**

Egixa borobila ez da existitzen.

**Zein da eguneko momenturik onena?**

Ba gaba, etxera heltzen naizenian.

**Beti gogoratuko dozun eguna?**

Amak urtiak egiten dittuan eguna.

**Zeri ez zontsake ezetzik esango?**

Proposamen on bati.

**Aholkurik onena?**

Ondo bizitzia.

## Bertso Begiz

*Iragarkiko neskaren gisan  
pozik eta alai dago.  
Gure herriko errepedeen  
egoeraren esklabo,  
Gabonetako plana  
a ze karakol jana!  
geratu bihar du bapo!  
Zure lanian kotxe faltarik  
behintzat ez dozu izango?*

*Eneko Beretxinaga*

*(Doimua: Iparragirre abila dela)*

**Nerea Gerrikaetxeberria Sarasua**

**Ze egingo ziñuke miloi batekin?**

Kotxe bat eta etxia erosi eta bapo bizi.

**Ze ez ziñuke iñoiz egingo?**

Striptisik ez neuke inoiz egingo.

**Soraluze zelakua pentzau jatzu?**

Ba herri oso txikixa eta bide oso txarrak

dauzkan herri bat.

**Autoeskolatik pasatzen dan jendia zelakua da?**

Danetikan dao, baina gaur pozik gare ze Gregoritik gainditu dau teorikua eta orduan, gaur egun lasaia izan da.

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea  
9 4 3 7 5 2 5 6 7  
20590 Soraluze

## Argazki zaharra



## 1973. urteko “Zar saridunen eguna”

1973. urtean jubitatuek egindako bazkarixa. Bazkarixan zerbitzen ibili ziran, Jose Angel Basauri, Imanol Lopez, Jesus Orbea, Maite Gorostidi, Ander Epelde, Tere Guenetxea, Ezozi Larrañaga eta Marga Perez de Labeaga agertzen dira mahaixaren inguruan.

Joseba Gorostidik lagatako argazkia

## Lehiaketa

Zein dago faltan zer soberan argazki honetan?



**Bi lagunendako  
afari mundial bat  
irabazi zeinke!!**

DEITTU

943 75 13 04 ra

**Aurreko  
alean...**



Erantzuna: Arraikuako etxebizitzak.  
Irabazlea: Manolo Galarraga.

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ  
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGGA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

**Bolia**  
taberna

Etxaburueta  
Tel.: 943 75 11 04  
20590 Soraluze





denda  
berria


denda  
berria

# ayerbe

liburudenda

Zezenbide 9  
Tel./Faxa:  
943 20 22 30

EIBAR



Irakurtzea entzutea ere badelako!!

PAPER  
**HOTSAK**  
paper@hotsak.com

GAZTELUPERO  
**HOTSAK**  
ERRAZAL 23 20590 SORALUZE  
+ 34 943 75 30 16  
GAZTELUPERO / HOTSAK.COM



Karibetik Kantaurira  
Joakin Arregi "TXE"ren bertsokak



Zaharregia, txikiegia agian  
Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin  
Bingen Mendizabal, Rafa Rueda



Karidadeko Benta  
Jon Maia eta enparauak



Mandarin Dotore  
Itzulpena: Rafa Egiguren  
Musika: Joserra Senperena  
Diseinua: J.L. Zumeta



Mal de ojo - Mestijaia




Mikel Urdangarin

www.hotsak.com





Fresaketa teknologia



**SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: [www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)

# "zakil alu hori"

poesia  
emeraldia



abeenduaren 19an, 22:30etan  
udaletxeko batzar aretoan

